



SARRERA

2015eko uztailaren 27an, Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) berrikusteko prozedura hasteko erabakia hartu zuen (gidalerro horiek otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onetsi ziren) eta, orobat, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren esku uztea berrikusketa hori zuzendu eta prestatzeko lana, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 10. artikulua ezarritakoari jarraiki.

Horrez gain, erabaki horren bidez, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen gidalerroen berrikusketa parte-hartze prozesu zabal baten bidez egitea, egungo gobernu-programarekin eta X. legegintzaldi honetan gidalerro horiek berrikusteari buruz Eusko Legebiltzarrean eman diren ebazpenekin bat.

Aldi berean, LAGak berrikusteko prozesu formala partaidetza-prozesu gisa planteatzeak EAeko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea egoera berrietara egokitzea dakar. Horren emaitza da, hain zuzen ere, aurkezten den “Oinarrizko Dokumentua”. Dokumentu honen helburua da agiri batean jasotzea LAGak berrikusteko prozesuan Eusko Jaurlaritzaren ikuspegia eta proposamenak, abiapuntu izan daitezten parte-hartze prozesua abian jartzeko eta azken emaitza moduan, “Gidalerroen Aurrerapena” dokumentua lortzeko, parte-hartze prozesu egoki baten ondoren.

“Oinarrizko Dokumentua”:

- EZ DA Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak LAGak berrikusteko prozesuaren baitan ezarritako izapide formal bat.
- EZ DA “Gidalerroen Aurrerapena” .
- PROPOSAMEN-AGIRI BAT DA, “Gidalerroen Aurrerapena” onartzeko legezko izapide formala egin aurretik parte-hartze prozesu bat zabaltzeko.
- LAGak berrikusteko prozesuaren kudeaketaren BERRIKUNTZA BAT da.

“Oinarrizko Dokumentua” hiru ataletan egituratuta dago. Lehendabizi, lurralde-ereduaren oinarriak zein izatea proposatzen den adierazten da. Ondoren, proposatutako lurralde-eredua aurkezten da, baita zein eremuk osatzen duten ere. Eta, azkenik, EAeren lurralde-antolamenduaren gobernantza adierazten da.



Parte-hartzea errazteko, “Oinarrizko Dokumentua” dokumentu exekutiboa eta sintetikoa da, lan-dokumentu zabalago eta garatuago baten emaitza, eta eskuragarria eta irekia izango da. Bi dokumentuak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Sailburuordetzak eta Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzak egin dituzte, Eusko Jaurlaritzako beste sailen lankidetzarekin eta ekarpenekin.

Eusko Jaurlaritzaren 2015eko uztailaren 27ko erabakiak, LAGen parte-hartze bidezko berrikusketa abian jartzeaz gain, bi epe ezartzen dizkio Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari, izapidetzeko hasierako faseari muga batzuk jartzeko. LAGak berrikusteko parte hartzeko ikuspegi horrekin bat etorrira, prozesuaren administrazio-izapidetzea eta Euskal Hiria Kongresua aldi berean egin nahi dira. Euskal Hiria Kongresua lurralde-antolamenduaren arloko topaketa-foro irekia da, eta urtero egiten da, azaroaren amaieran.

“Oinarrizko Dokumentua” aurkeztuta, bete egiten da Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari hura egiteko emandako epea, eta urtebeteko epea dago, 2015eko azarora artekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspenaren aurrerapena aurkezteko, orain abian jartzen den parte hartzeko prozesuaren emaitza moduan.

2015eko azaroaren 23a